

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko apirilaren 25a



Juan Bautista Alduntzin leitzarrak beltz ikusten du artzainen etorkizuna.

LUIS AZANZA

Erronkariko gazta: jatorri izeneko iruzurra?

■ EHNEk hautsak harrotu ditu azken egunotan, eta askok oraindik ez dakite zergatik, urte askotan ahopeka esan dena besterik ez baitu salatu sindikatuak. Horren arabera, Enaquesa enpresak Frantziako esnea inportatzen du Erronkari jatorri izeneko gazta egiteko. Hori, egiaztatzen bada, iruzurra litzakete, Jatorri Izendapeneko araudian garbi agertzen baita Erronkari gazta egiteko bertako ardien —latxa eta

borro ardien— esnea bakarrik erabil daitekeela. Enaquesako zuzendaritzak, Jatorri Izendapeneko Kontseilu Arautzaileak eta UAGN sindikatuak berehala erreakzionatu dute: EHNE-ren salaketa faltsua dela, eta Frantziako esnea nahaske-tetarako erabiltzen dutela. Besterik diote gero eta etorkizun beltzagoa duten artzainek. Horiek pozik hartu dute salaketa: «Bazen garaia gauzak garbi esateko». ■

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Nafarroako Bertsolari Txapelketak zerran anitz izan du dirudienez. Txapelketa hasi zenetik bertsolarion bertso moldeari buruz gauza dexeente irakurri dut: bertsolari zaharren —eta batez ere Iparraldekoen— egite molde desagertzen ari omen da poliki-poliki txapelketetik. Eta egia da. Zergatik?

Alde batetik Nafarroan gero eta gazte gehiago ari garela bertsotan; eta zoritxarrez txapelketa dugu gure gogoa eta lana plazaratzeko ia bide bakarra. Iparraldean, aldiz, fruituak ez datoz nahi bezain agudo eta datozenak ez dabilte Iparraldeko bertsokera.

Bertalde, Iparraldeko bertsolari helduek txapelketa utzi dutelako, Alkat eta Xalbador bezalako bertsolariek, adibidez. Hori ez litzateke hain larria izan bertsogintza utzi dutela adieraziko ez

Aintzinera goazi

balu. Baina Nafarroan oro har, txapelketa utziz gero bat-bateko bertsogintza uztera beharturik gaude.

Beraz, tradiziozko bertso molde hori txapelketatik ezezik, egungo nafar bertsogintzatik ere desagertzen ari da.

Txapelketak, eta are gehiago urtero eginez gero, bertsolaria erre dezake eta gainera ez da batere atsegina urtean zehar saiorik egin gabe bertan parte hartzea.

Hori dena, txapelketa Nafarroako bertsolaritzaren sostengu bakartzat hartu dugulako da, bide berriak irekitzeko beharri kasurik egin gabe; eta penagarria da. Penagarria da bertsolariak desanimaturik egotea, Mikel Bujandak apirilaren 15eko EGUNKARIAN zioen bezala, baina bertsolari helduak finaletik «lasterregi baztertu» ditugula eta ho-

rrek desanimatu dituela (Iparraldeko bertsolariak, batez ere) erratea ez da egokia nire ustez. Nafarroako bertsolaritzaren tradiziozko bertso molde desagertzea penagarria da, bai, baina pozgarria da finalean geunden zortzi bertsolarietatik sei gazteak izatea. Penagarria da dugun ia aukera bakarra txapelketa izatea eta horrexegatik finalean ez sartzeak desanimatzen gaitu, baina «lasterregi baztertu» ditugula erratea ez zait bidezkoa iruditzen.

Nafarroako bertso maila goitzen ari da, Nafarroako bertsokera aldatzen ari da bertsolari berriak daudelako eta Nafarroako Txapelketaren finala horren islada izan da, eta hori ez da txarra. Txarra dena da, txapelketa islada bakarrik izan beharrean, Nafarroako bertsolaritza bera izatea. X

* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Barañain: Mikel Elizaga kantariak *Apaiz gaztea* ikuskaria eskainiko du gaur, hilak 25, Barañaingo Sahats euskaltegian, ilunabarreko 20:30etan. IKA eta Haizea elkarteak dira antolatzaileak. Sarrerak 300 pezeta (12 libera) izanen dira salgai.

Iruñea: Pablo Sarasate orkestrak XX. mendeko musika kontzertua eskainiko du gaur, hilak 25, 20:00etan, Pablo Sarasate kontserbatorioan.

Goizueta: Balerdi Balerdi taldeak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 26, gaueko 24:00etan, herriko gaztetxean.

ERAKUSKETAK

Lizarra: Eugenio Ortizen margo eta marrazkiak izanen dira ikusgai Gustavo de Maeztu museoa maiatzaren 4ra arte.

Zizur Nagusia: Gemmaren olio margoak herriko Kultur Etxean ikusgai izanen dira gaurtik maiatzaren 11ra arte.

ZINEMA

Iruñea: Zinema eta zuzeneko musika uztartuko ditu Nafar Ate-neoak Gaiarre antzokian heldu den asteartean, hilak 29, ilunabarreko 20:00etan. *Zanzibarko urtegiak* pelikula pantailaratuko dute (Tod Browning, 1928), eta halaber Josetxo Fernandez Ortega pianu jolea berak konposatutako musika jotzen ariko da.

BESTELAKOAK

Iruñea: Arga ibaiko Iruñerriko ibarrak ezagutzeko txangoa antolatu dute Txantrea auzoko Eguzki talde ekologistak eta Zutarri gazte taldeak. Txangoa bihar, hilak 26, egingen dute. Hitzordua Txantreako Auzotegin egin dute, goizeko 10:00etan.

Burlata: Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak Torres plazan ariko dira bihar, hilak 26, eguerdiko 12:00etan.

Iruñea: Koldo Izagirre idazleak *Non dago Basques' Harbour* izeneko poesia errezitaldia eskainiko du heldu den asteartean, hilak 29, Erraldien txokoa, izen bereko bere liburuan oinarriturik. Hirurogeita lau poemak osatzen dute liburua, eta ia denek itsas eta portu giroa dute paisaia.

Zizur Nagusia: Haur eta Gazteen-tzako III. Ipuin Lehiaketa antolatu du udalak. Herriko haur eta gazte guztiek parte har dezakete lehiaketan euskaraz zein gaztelaniaz. Adinen arabera, lau sail izanen dira. Udalak 125.000 pezetarekin sarituko ditu irabazleak, eta haien lanak argitaratuko ditu. Informazio gehiago jasotzeko, Kultur Etxean galde-tu.

nafarkronika

Ana Unanue

Lizarbe, Arbeloa etorri duk hitaz galdezka

Eta guk ere non hintzen ez genekiela esan zioagu, badaezpada, ez baikaituk batere fio. Eta zuek? Fidatzekoa iruditzen al zaizue musean aritzeko Javier Otanorekin eta Javier Tabernarekin elkartzen den inor? Konfiantzazkoa iruditzen al zaizue halako adiskideak dituen norbaitek babestutako inor? Niri ez. Horregatik ez naiz batere fio Juan Jose Lizarbez, bere burua dagoeneko PSNko idazkaritza nagusian eserita ikusten duen gorbatahunaz.

1996ko ekainaren 17a, gauerdia. Javier Otano lehendakaria Javier Taberna Merkataritza Ganbarako buruarekin eta Miguel Angel Anzizar UGTko idazkari nagusiarekin ari zen musean. Telefono dei batek moztu zuen karta jokoa. Otanorentzat zen, Cordovillako egunkaritik, Suitzako kontu korranteaz galdezka. Otanok musean egiten dena egin zuen: Suitzako kontuaz ezer ez zekiela esan. Alferrik, ordea. Hurrengo egunean *Diario de Navarra*-k lehen orrialdean erakutsi zuen hainbeste denboran ezkutatua izan zuen karta.

Baina hori guztia eza-guna da, ez luke inor asaldatu behar. Asaldagarriagoa iruditzen zait PSNren geroa gau hartan Otanorekin pattrarra eta mahaia konpartitu zuen norbaiten esku dagoela jakitea. Jakina baita Lizarbek bi aitajainko izan dituela: Victor Manuel Arbeloa eta Miguel Angel Anzizar. Lehendabizi-

koari bizkarra eman dio alderdi sozialista bereganatzeko bazterrean utzi behar zuela ohartu den orduko (gaitz erdi!). UGTkoari, berriz, oraindik ez dio kozkorrekorik jo, ezta joko ere.

«Nafarroako sozialismoak lider berria dauka», esan du Anzizarrek Lizarbez. Akabo orduan alderdi sozialista berritzeko eta garbitzeko promesak. Aralarko San Migelek, San Frantziskok, San Ferminen edo nor denak anpara gaitzala sozialismoaren bide zuzena UGTk erakutsi behar badigu.



asteko pertsonaiak



Javier Markotegi
Hezkuntza Kontsilaria



Javier Miranda
Osasunako bazkidea

■ Nafarroako Gobernuak dekretuz onartu zuen joan den astelehenean Markotegik prestaturiko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren aldaketa. Markotegiren aldaketa planak hezkuntza publikoan lan egiten duten gizarte talde guztien haserrearekin piztu du, baita Nafarroako Parlamentuko oposizio talde gehienena ere. Guztion irudikoz, atzeraketa da, eta hainbat ikasle baztertu dituzte, ikasle azkarrak eta tontoak bananduz. Asteazkenean PSN-PSOE, IUk, HBk eta EAK aldaketa bertan behera uzteko eskatzen zuen mozioa onartu zuten Parlamentuko Hezkuntza Batzordean. Dekretuz onartu zenez, gobernuak ez dago legez behartuta mozioak eskatzen duena betetzera. Moralki, ordea, gauzak bestelakoak dira.

■ Osasunaren egoera gero eta itogarriagoa da, gero eta gertuago dute gorritxoek Bigarren B maila. Zaleen artean ez zik, jokalarien artean eta taldeko zuzendaritzako kide eta bazkideen artean ere sumatzen hasia da haserre eta egonezina. Javier Miranda Osasunako bazkideak, adibidez, sinadurak bildu eta taldeko zuzendaritzak denboraldiaren amaieran egin nahi duen ezohiko batzarra aurreratzeko asmotan dabil egun hauetan. Orain artean, 600 baino gehiago bildu ditu, bazkide konpromisarioen Batzar Nagusia deitzeko behar direnak baino gehiago, beraz. Batzarra deitu eta hauteskunde prozesua abian jartzea dute bazkideok helburu. Mirandak astelehenean aurkeztuko ditu sinadurak taldearen egoitzan.

ahaztu gabe!



TXATREAKO JAIK

Iruñea: Sanferminak alde batera utzirik, seguru asko Txantreako jaiak dira Iruñeko jaiarik onenak. Urtero-urtero jende andana elkartzen da herri barraken inguruan, urtero-urtero giroa bikaina izaten da, eta urtero-urtero jai denboraldiaren hasiera markatzen dute. Jakina denez, iaz ez zuten amaiera onik izan. Polizien eta manifestarien arteko lis-kar larriak izan ziren, eta bertan behera utzi behar izan zituzten. Hori dela eta, antolatzaileek aurtengo «inoiz baino lan gehiago» egin dute jaiak antolatzen, eta, beraz, oso litekeena da inoiz baino animatuagoak izatea. Txupinazoa asteazkenean botako dute, eta jaiak igandera arte iraunen du. Txupinazoa ilunabarreko 20:00etan botako du. Aurten AEKri dagokio lan hori. Gaueko 21:00etan Felix plazan txistu eta gaita dantzaldia izanen da. 21:45etan Karrikiren Oinordekoak ganadutegiko bigantxeekin entzierroa egingen dute. 22:30etatik 24:00etara, dantzaldia izanen da Euskara plazan, eta 24:30etan Armonia penatik txaranga aterako da.

a di!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Iruñea

Pirinioetako Zeharkaldia prest

Anaitasuna Elkarateak antolatu du eta ekainaren 27an amaituko da izena emateko epea

Anaitasuna Elkarateak antolatuta, Pirinioetako Zeharkaldia hamargarren aldiz ospatuko dute aurten. Uztailaren 13an abiatuko da ibilaldia era abuztuaren 28an amaituko da. Parte hartu nahi duten mendizaleek —hamasei urtetik gorakoek, beti ere—, ekainaren 27ra bitartean izanen dute zabalik izena emateko epea. Zeharkaldia amaituta, bilera egingen dute partehartzaile guztiek urrian.

Erredakzioa / Iruñea

ANAITASUNA ELKARTEAK antolatuta, Pirinioetako Zeharkaldia hamargarren aldiz ospatuko dute aurten, uztailaren 13tik abuztuaren 28ra bitartean. Parte hartu nahi duenak, zabalik du jada izena emateko epea, ekainaren 27ra arte, hain zuzen ere. Aurten, Hendaiaetik abiatuko dira partaideak, eta Port Boun amaituko da ibilaldia.

Pirinioetako Zeharkaldian parte hartu ahal izateko hamasei urtetik gorakoa izatea beharrezkoa da. Partaide bakoitzak, halaber, gutxienez zati baterako izena eman beharko du, eta gehienez hirurako. Ibilaldia sei zatitan dago banatua, eta bakoitzak astebete iraungo du. Hendaiaetik Pikatuara abiatuko da lehenengo eta 55 lagunek parte hartu ahal izanen dute gehienez. Pikatuatik Bujaruelora joan da bigarrena (45 partaide), Bujaruelotik Benasquera hirugarrena (45 partaide), Benasquetik Val Ferrera laugarrena (45 partaide), Val Ferreratik Ull de Terrera bosgarrena (55 partaide) eta Ull de Terreretik Port Boura azkena (55 partaide). Abuztuaren 28an izanen dira han Pirinioetako Zeharkaldiko partaideak, ibilaldiari amaiera emanez.



Gailur eta haran, Pirinioak alderik alde zeharkatuko ditu mendi martzak.

Lehenengo, laugarren, bosgarren eta seigarren zatien prezioa 43.000 pezetakoa izanen da, eta 44.500ekoa bigarren eta hirugarren zatiena. Gazte Txartela dutenei % 10eko beherapena egingen zaie. Prezio horren barruan honakoak sartuko dira: elkartera joan-etorria autobusez, esperientzia duten zazpi lagun

zerbitzua, eguneroko gosaria eta bazkaria, kanpin denda, botikin zerbitzua eta medikua, eta eguneroko ibilaldien informazioa karpeta batean. Antolatzaileek, halaber, hiru ibilgailu eramango dituzte materiala garraiatzeko, eta ibilgailu bakoitzak irati emisora bat izanen du.

Anaitasuna Elkarateak azpimarratu duenez, zailtasun teknikorik gabeko ibilaldia bada ere, desnibel handiak igo edo jaitsi egin beharko dira, beraz, fisikoki ongi prestatuta egotea komeni da, zeharkaldia oso gogorra baita. Aurtengo ibilaldia prestatzeko, Kataluniako Txangozale Taldeen Federazioaren, Nafarroako Mendi Federazioaren, Bideko Ama Birjinenaren Ospitalearen eta Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntza jaso du Anaitasunak, baita Nafarroako Gobernuak Kiroletako Gazteriaren Institutuari babesa ere.

Aurtengo Pirinioetako Zeharkaldia amaituta, datorren urriaren 11 eta 12an, ibilaldian parte hartuko duten mendizale eta antolatzaileek bilera egingen dute, Huescako Lizara de Aragüés del Puertoko aterbean. X

Aurtengo Pirinioetako Zeharkaldia amaituta, datorren urriaren 11 eta 12an, ibilaldian parte hartuko duten mendizale eta antolatzaileek bilera egingen dute, Huescako Lizara de Aragüés del Puertoko aterbean. X

Lizarra

Kataluniaren Eguna ospatuko dute igandean

■ Eguneko ekitaldien artean bazkaria egingen dute

Erredakzioa / Iruñea

KATALUNIAREN EGUNA ospatuko dute igandean Lizarran, Nafarroako Casal Catalak antolatuta. Egun horrek emanen dio amaiera Lizarran hamazazpigarren aldiz egin den Kataluniako Kultur Asteari. Montserrateko Ama Birjinaren omenez, bazkideei eskainiko die eguna Casal Catalak. Puyko elizan goizeko hamarretan egingen duten meza joanen diren emakume guztiei arrosa bana oparituko diete.

Meza bukatuta, haurren arteko saskibaloi lehiaketa izanen da. Ondoren, hirian zehar bisita egingen dute eta udaletxean har-

tuko dituzte Casal Catalako kideak. Goizeko 12:30etatik aurrera, Lizarrako Foruen plazan, dantza jaialdia egingen dute. Esbart Lleidata taldeak parte hartuko du, baita Lizarrako Gaiteroek ere. Ospakizunei amaiera emateko, bazkaria egingen dute denek elkarrekin.

Nafarroako Casal Catala elkarreko lehendakari Jordi Battallak ekitaldion garrantzia azpimarratu zuen Kataluniaren Egunaren aurkezpenean: erran zuenez, kataluniarren nortasuna agertzeko balio dute. Nafarren partehartzea ere bultzatu nahi dute. Nafarroako Casal Catala 1970. urtean sortu zen. X

Tutera

Gazteentzako informazio zerbitzua jarriko dute

■ Udalak antolatu du eta maiatzaren 5ean hasiko da

Erredakzioa / Iruñea

TUTERAKO UDALAK hiriko gazteentzako informazio eta orientabide zerbitzu berria jarriko du datorren maiatzaren 5etik aurrera. IO (Informazioa eta Orientabidea) izena jarri diote, eta, Udaleko arduradunek azaldu dutenez, egun Tuteran diren zerbitzuen osagarri izan nahi du, gazte guztiek arratsalde eta jai egunetan ere informazioa eta orientabidea jaso ahal izan dezaten.

Zerbitzu berria Queiles kaleko kioskoan egonen da, eta han izanen dira lanean Pilar Alvarez, Estrella Monte eta Sonia Sasi

boluntarioak. Hiru zerbitzu eskainiko dituzte kioskoan: lehenbizikoa, Europako gaiet buruzkoa; bigarrena, gazteei buruzkoa, oro har; eta hirugarrena, zuzenbidezko gaiet buruzkoa. Astelehen, asteazken eta ostiralean arratsaldeko seiak eta bederatziak bitartean egonen da zabalik, eta larunbatetan, arratsaldeko lauretatik seiak arte.

Queiles kaleko kiosko berean, orain arte udaletxean zegoen Infolan zerbitzua kokatuko dute maiatzaren 5etik aurrera. Tuterako gazteei lana bilatzen lagundu nahi die zerbitzu horrek, eta orain arte 219 lagunek jo dute bertara. X

Leitza

Herri Krosa egingen dute igandean Aurrera elkarateak antolatuta

■ Hiru alditan hartuko dute parte korrikalariek

Erredakzioa / Iruñea

AURRERA ELKARTEAK antolatuta, Herri Krosa egingen dute igandean Leitza. Betiko ibilbidea prestatu dute antolatzaileek, eta aurreko urteetan bezala ahalik eta herriar gehienek parte hartzea espero dute. Leitzarrak, hain zuzen, gorputza prestatzen hasi dira azken egunetan, eta hori seinale ona da, antolatzaileek irudikoz.

Parte hartu ahal izateko, igandean bertan eman beharko dute izena korrikalariek Aurrera elkaratearen egoitzan. Lasterketari dagokionez, hiru txandatan egingen dute. Goiztiarrenak bederatzi urte bitarteko neska-mutilak izanen dira. Goizeko hamarretan eta laurdenetan aterako dira eta 800 metroko ibilbidea egin beharko dute. Hamar eta erdietan, berriz, hamar eta hamabost urte bitarteko leitzarrak abiatuko dira irteeratik. Adinaren arabera, ibilbideari itzuli bat edo bi eman beharko diote. Azkenik, hamaikak eta laurdenetan, gainontzeko korrikalari guztiek parte hartuko dute Leitzako Herri Krosan.

Hamar kilometrotako ibilbidea prestatu dute antolatzaileek handientzat, lau itzulitan banatua. Emakumeek, dena den, ibilbide motzagoa izanen dute, bi itzuli eman beharko baitituzte. Beteranoek eta hamasei eta hemezortzi urte bitarteko gazteek hiru eman beharko dituzte.

Sariei dagokionez, seniorren artean lehenak 30.000 pezeta jasoko du, bigarrenak 20.000 eta hirugarrenak 10.000. Emakumei dagokionez, erdia jasoko dute. Helmugara ailegatuko diren korrikalari guztiei, halaber, kamiseta bana oparituko diete Aurrera elkarateko kideek.

Elkarate horrek, Herri Krosa ezezik, Pilota Txapelketa ere antolatu du, bosgarren aldiz. Hamabost urtetik gorakoek parte hartu ahal izanen dute. Izena emateko Plaza autoeskolara jo behar dute herritarrek, apirilaren 30eko arratsaldeko zortziak baino lehen. Bikote bakoitzak bi mila pezeta ordaindu beharko du. Izena ematean, txapelketako arautegia jasoko dute partehartzaileek, eta, antolatzaileek iragarri dutenez, behar-beharrezkoa izanen da horiek guztiak betetzea txapelketak aurrera egin ahal izateko. Herri Krosan bezala, ahalik eta herriar gehienek parte hartzea espero dute Aurrera elkarateko kideek, prestatzen ari diren txapelketa berri horretan. X

Iruzurra Erronkari
jatorri izenean?

Usain frantsesa antzeman diote Erronkagaztari

Euskal Herriko Nekazari Elkartearen salaketak argitara atera du Jatorri Izenaren inguruan aspalditik zata zegoen susmoa

Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak Enaquesa gaztandegiaren kontra egindako salaketak Erronkari jatorri izeneko gaztaren barrenak nahasi ditu azken asteetan. Sindikatuaren ustez, Frantziako esne asko ekartzen ezezik, esne hori Erronkari gazta egiteko erabiltzen ari da Enaquesa; iruzurra egiten, beraz. Kanpoko esnea ekartzeak, gainera, hemengoaren prezioa merkatu du, eta artzainek beltz ikusten dute etorkizuna.

Eduarne Elizondo / Iruñea

EUSKAL HERRIKO Nekazarien Elkartasuna sindikatuak (EHNE) hautsak harrotu ditu ardi esne sektorean. Duela bi aste jendarean salatu zuen Enaquesa enpresak Frantziako esnea inportatzen duela Erronkari jatorri izeneko gazta egiteko. Hots, iruzurra egiten duela, jakina baita Erronkari Jatorrizko Izendapeneko araudian garbi agertzen dela gazta bertako ardien esnearekin bakarrik egin daitekeela. EHNEren iritziz, inportazioek badute zerikusirik ardi esnearen prezioaren beheakadarekin, eta horrela segituz gero gure artzainak museoko pieza bihurtuko dira laster.

EHNEren salaketak ez du inor ustekabean harrapatu. Abeltzainen artean, Jatorrizko Izendapenaren Kontseilu Arautzailean eta Nafarroako Gobernuan bertan aspalditik zebilen horren inguruko zurrumurrua, nahiz eta orain arte nahiago izan duten ez ikusiarena egin.

Jatorrizko Izendapenak eta Nafarroako Gobernuak publikoki EHNEren salaketen aurrean haserre erakutsi badute ere, erakunde bion barruan ezaguna da aitortua da gertatzen ari dena. Enaquesak ez latx ez borro diren ardien esnea jasotzeko eskaintzak egin izan dituela ezaguna da, adibidez, latxaren izenean agertzeko eskatuz.

Enaquesa da Erronkari gazta egiten duen enpresa nagusia. Jatorri izeneko gaztaren % 80 egiten du. Horregatik sortu du halako zalaparta EHNEren salaketak. Susmoak haratago doaz, ordea. Bidankozen, adibidez, Frantziako zisterna-kamioiak ikusi izan dituzte Onkizko gaztandegiaren aurrean. Onkizun Erronkari jatorri izeneko gaztak besterik ez dituzte egiten. Hortaz, gaztandegi horretakoek ezin dute argudiatu Frantziako esnea nahasketarako erabiltzen dutela. Enaquesak egin duen moduan.

Patxi Iraizoz Enaquesako zuzendari gerentea oso haserre agertu da EHNEk egindako salaketagatik, eta gezurra dela azpimarratu du behin eta berriz; dienez, sindikatuaren jokabidea jatorri izena arautzeko kontseiluan joan den urtarilean egindako hauteskundearen emaitzen ondorioa da.

Lehenbiziko hauteskundeak izan ziren urtarilekoak, eta EHNE sindikatuak ez zuen or-

dezkaririk lortu. Artzainen bi ordezkariak, Antonio Galzagorri —Juan Ramon Arburuaren ordezkaria da, hark kargua hartu ere ez baitzuen egin— eta Jose Erneta, Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasuneko (UAGN) kideak dira.

Teodoro Garcia kataluniarra buru duen Enaquesak Frantziako esnea ekartzen duela ez du ukatu Patxi Iraizozek, baina erran duenez, ez du Erronkari gazta egiteko erabiltzen, baizik nahasketarako, saltzeko edo gurina egiteko. EHNEren ustez, ordea, kontraesan asko dago, eta nabarmendu du urtarilla eta apirila bitartean Enaquesak 530.000 litro esne ekarri duela Frantziatik.

EHNEren salaketek asko haserretu dute Enaquesako zuzendari gerentea, eta gaztandegia jatorri izena alde batera uzteko prest zegoela ere erran zion egunkari honi. Aukera hori, asteazkenean jatorri izeneko Kontseilu Arautzaileak Erronkari gaztaren inguruan sortu den polemika aztertzeko bileran azaldu behar zien gainerako kideei, kontseiluko lehendakaria baita Enaquesako zuzendaria, Patxi Iraizoz bera alegia. Bere asmoa, ordea, bazter utzi du enpresak azkenik.

Bileraren ondotik Erronkari jatorri izenak plazaratutako prentsa oharran, dena den, EHNErena bezalako salaketek izendapenari egiten dioten kaltea berretsi du Kontseilu Arautzaileak, eta hemendik aurrera salaketa horien aurka har daitezkeen neurri legalak aztertuko dituela gaineratu du.

Araudia aldatzeko aukera • Orain artean errandakoari eutsi dio EHNEk, gurekin mintzatu den Lourdes Indaburu sindikatuak kidearen bitartez. Salaketak berretsi, eta era berean, Erronkari Jatorrizko Izendapenean Enaquesak duen indarra azpimarratu du. Patxi Iraizoz, erran bezala, Kontseilu Arautzaileko lehendakaria da, baita 100 tonatik gora gazta ekolozten duten enpresari ordezkaria ere, Enaquesa baita Erronkari gazta egiten duten bost gaztandegien artean hainbeste ekolozten duen bakarra. Gai nontzeko gaztandegien ordezkaria —Aznarez Lus Anaia, Onkizu, Diego Etxea eta Uztarrotze— Miguel Aznarez da. Artzainen bi ordezkariak gain, Nafarroako Gobernuak beste bi



Erronkariko gazta ardi latx eta borroen esnearekin egin behar dela azpimarratu du EHNEko Lourdes Indaburuk. Luis AZANZA



ditu. Ahotsa bai, baina botorik emateko eskubiderik ez dute azken horiek.

Indabururen ustez, Erronkari jatorri izeneko Kontseilu Arautzaileak hagitx ahula da, eta orain artean, behin-behineko moduan funtzionatu izan du. Hori dela eta, jada gaztandegiek proposatu duten araudia aldatzeko aukerak EHNEkoen kezka piztu du. Egun indarrean den 1991. urteko arautegiaren arabera, bertako ardi latx edo borroen esnearekin egin daiteke Erronkari gazta. Gaztandegiek, ordea, araudi hori aldatu nahi dute latxak edo borroak ez diren beste ardien esnearekin ere egin ahal izateko. «Horrek gure artzainen esnea ez biltzea ekarriko luke, baita prezioen beheakada ere. Litro gehiago lortzea da euren helburua. Oso arriskutsua da; gaur ate hori zabaltzen badute, bihar beste bat irekiko dute», azpimarratu du Lourdes Indaburuk.

EHNE sindikatuak egindako salaketak UAGNren erantzuna ere piztu du. Alfredo Erbiti sindikatuak gerenteak garbi utzi nahi izan du Frantziatik esnea ekartzea legala dela, eta hori baino larriagoa dela frogarik gabe inor salatzea. Erbitik adierazi du EHNE sindikatuaren jokabideak Erronkari jatorri izenari min handia egin diola. Halaber, araudia aldatzeko aukeraz galdetuta, UAGNk ez duela bere jarrera oraindik zehaztu azaldu digu. «Aldekoak eta aurkakoak ongi aztertu eta abeltzainentzat eta sektorearentzat hoberena zer den ikusi beharko dugu».

Enaquesaren jokabidea ezezik, Erronkari jatorri izeneko Kontseilu Arautzaileko artzainen ordezkariak —UAGNko kideak dira— «axolagabekeria» ere salatu du EHNEk. Sindikatuak jakinarazi duenez, bileretan ez dute parte hartzen. Horri buruz ez du deus erran nahi izan Alfredo Erbitik, «kontu pertsonalak» direlako.

Kontseiluan 409 artalde daude kreditatuta

• Erronkari Jatorrizko Izendapena 1981. urtean sortu zen, apirilaren 9an, eta 1991. urtera arte, Jatorri Izendapenen Institutuaren barruan egon zen. Egun horretatik aurrera, Nafarroako Gobernuaren esku gelditu zen. Izendapeneko Kontseilu Arautzaileko kideak aukeratzeko hauteskundeak, aurtien, urtarilean, egin dira. Izendapenak berak iazko kanpainari buruz plazaratutako datuen arabera, 409 artalde daude Kontseiluan kreditatuta, denetara 65.155 ardi. Izendapenaren barruan, ia bi milioi eta erdi litro esne atera zen iaz, eta bost gaztandegien artean —Enaquesak % 80— laurehun kilotik gora gazta egin zuten. Jatorri izeneko datuen arabera, ia 4.500 analisi egin zituzten.

Iruzurra Erronkari
jatorri izenean?

Berrehun ardi latxen esnea saltzen dio Juan Bautista Alduntzinek Enaquesari.

Luis AZANZA



«Larru gorritan gaude artzainok»

Juan Bautista Alduntzin leitzarrak Erronkari jatorri izeneko iruzurra salatu du

Eduarne Elizondo / Leiza

LEITZAKO Erasote auzoan da Juantxenea, Juan Bautista Alduntzinen baserria. 41 urte ditu eta artzaina da. Danoneri saltzen dio bere 40 behiek ematen dioten esnea; Enaquesa enpresari, berriaz, ardiena. Erronkari gazta egiteko saltzen duen esnea lortzeko, berrehun ardi latx inguru ditu Alduntzinek soroetan. Bokazioz da leitzarra artzain, baina hau orain arteko momenturik txarrena dela aitortu digu: «Larru gorritan gaude artzainok».

Juan Bautista bezalako artzain nafarren kezka —Erronkari jatorri izenari esnea saltzen dioten askorena behintzat— prezioen jaitsierak piztu du. Izugarria izan da, kolpe handia guretzat. Iaz ere, litro bakoitzeko 25 pezetakoa da iaz eta aurtengo esne kanpainen arteko aldea. Nafarroako hainbat enpresarik kanpotik ekarritako esnea da behe-rapenaren erantzule.

«Nire inguruan zer gertatzen ari den ikusita, nire ustez, aurtien artzainen % 10-15ek utziko diote esnea saltzeari, ez baita errentagarria. Eta egoerak bere horretan jarraitzen badu, lan hori bazter utziko du hemengo artzain tradizionalak. Leitzan, jada, nik dakidala lauzpabostek utziko dute aurtien», Juan Bautista Alduntzinen hitzek garbi azaltzen dute haserre eta atsekabetua dagoela. «Frantziako esnearen

kontra guk ezin dugu deus egin. Entzun dugunez, 90 pezetan erosi izan dute».

Leitzako artzainak bertako ardi latxaren esnea aldarrikatu nahi izan du, are gehiago Erronkari jatorri izenari buruz ari bagara. Horri dagokionez, ez da batere kontent Enaquesa enpresaren jokabidearekin. EHNEk ezagutza emandako susmoak bere egin ditu Alduntzinek eta «oso larritzat» jo du sortu den egoera. «Gure marka erabiltzen ari dira Frantziako esnea saltzeko. Eta guri iruzurra egiten badigute, hori ezagutarazi eta geldiarazi behar dugu», gaineratu du.

Alduntzinen ustez, artzainei dagokie Administrazioari erantzukizuna eskatzea, «Gobernua baita izendapenaren babeslea». Artzainak, ordea, ez dira behar bezain elkartuta leitzarraren idurizko, «eta hori gure kontra egiteko erabiltzen dute. Ez gaituzte elkartuta ikusten, ohartu dira ez dugula indarrak eta nahi dutena egiten dute. Etxetik atera eta egoera salatu behar dugu artzainok».

Prezioen inguruan gertatu dena «lotsagarria» dela erran digu artzainak. «Orain arte aguantatu dugu, lehen ere bagenekien Frantziatik esnerik ekartzen zutela, baina oraingo errematea izan da». Prezioen egoeraz ari da artzaina, zehazki, aurtien Nafarroan gaztandegiek indarrean jarri duten ordainketa sistema berriaz. Bere ustez, «prezioa merkatzeko sistema» da. Kanpaina osoan lortuko duen esne gehiena dagoeneko aterata du Alduntzinek —orotara, aurtengo kanpainen 18.000 litro esne lortuko duela uste du—, eta otsailan, adibidez, 102 pezeta irabazi du litroko, proteina eta grasa hamaika gradu inguru lortuz. Enaquesak 9,50 pezeta ordaintzen du gradu bakoitzeko.

Leitzako artzainak ezin du sinetsi 140 pezeta litroko ordaindu izana Enaquesak, Patxi Iraizoz zuzendari gerenteak berak guri erran bezala. 9,50 pezeta graduko ordainduz gero, hamalau gradutik gora behar da kopuru hori lortzeko, eta oso zaila da. Alduntzinentzat, ez da posible, gradu bakoitzeko norbaiti ge-

hiago ordaindu ez badio, behintzat».

Artzainak ez du uste Erronkari Jatorrizko Izendapeneko Kontseilu Arautzaileak bere kezak argituko dituenik, bere ustez ez baita inor han beren interesak defendatzeko. UAGN sindikatuak artzainen bi ordezkariak buruz ari da, eta haien jokabidea, Alduntzinentzat, lotsagarria da: «Bileretan ez joateko hobe zuten hauteskundeetara ez aurkeztea. Gehiena dagoeneko aterata du artzain guztien ordezkariak direla, eta horren arabera jokatu».

Enaquesak Erronkari jatorri izena alde batera uzteko aukerak ez du gehiegi kezkatzen Juan Bautista Alduntzin. «Nahi duenean uz dezake», esan du. Artzain leitzarrak, hain zuzen, gaztandegi txikiak izendapenaren alde egin dezaketena azpimarratu du. «Asko sufritu behar dute, lan asko egin, baina badakigu bertako esnea erosten dutela, ez kanpokoak. Gaztandegi txikiak eskutik etor daitezke hobeakuntza, kalitatearen aldeko apustua egin baitute. Itxaropen handia dago hor».

Juantxeneko Alduntzinek beltz ikusten du artzainen etorkizuna, baina hala eta guztiz ere, ez da borrokatu gabe amore emateko prest. Hori dela eta, artzain guztiei luzatu die deialdia, «etxetik atera eta parte hartu behar dugu». Leitzarra, behintzat, kalera ateratzeko prest da. X

Juan Bautista Alduntzin: «Gure marka erabiltzen ari dira Frantziako esnea saltzeko, eta iruzurra egiten badigute, guk salatu behar dugu»

Igogailu baten historia

■ Aurtengo udaberri aurreratu honen egun eguzkitsu batean abiatu ginen Sanduzelaiko Miluze euskaltegitik gotorlekurantz irakasle batzuk eta ikasle mordoska bat. Helburua, gotorlekuko erikin batean zegoen Euskal Herriko idazleei buruzko erakusketa bat ikustea, eta horrelaxe zeozer gehiago ikastea zen.

Hala ba, aida batean iritsi ginen aipatu Gotorlekura, eta sartu bezain azkar ikusi nuen, zoritxarrez, nire susmoak egia zirela. Izan ere, erakusketa jarrita zegoen eraikinak sarreran oztupo arkitektoniko ugari baitzituen. Eraikin horren izena zera da, Arma aretoa, eta oraindik argiago geldi dadin adieraziko dut non dagoen kokatua. Hara, Armada etorbideko ataritik sartu eta aurrean, pixka bat ezkerraldean eta hondoan dagoen bigarren eraikina da.

Kontua hauxe duzue: Arma areto ondora iritsi eta lehendabizi ikasleek eta lakideek lagundu behar izan zidaten espaloia igotzen, gero eraikinera sartzeko, lehenik pittin bat altxatu eta beranduago koska batean zehar jaitsi izan ninduten.

Hantxe bertan, atari nagusitik sartu eta ezkerraldean, ate batean «igogailua» jartzen zuten.

Norbait joan zen arduradunaren bila giltza ekar zezan, deskonektaturik baitzegoen. Giltzazaina iritsi eta berahalaxe esan zigun han ez degoela igogailua, edo baldin bazegoen ere ezin zela erabili, beraz, berriz ere lagundu zidaten kanpora ateratzen ate nagusia erabiliz. Behin kanpoan, ezkerrerantz jo eta azken muturreraino joan izan behar genuen. Bigarren ate hori itxita zegoen, jakina, ez baita ohikoa. Berriro ere, lehenengo aldian bezelaxe sartu behar izan ninduten, gora eta behera.

Oraindik ez dut esan baina jakin beharra dago, nik erabiltzen dudak gurdixka elektronikoa 115 bat kilo dituela. Horiei gehitu behar

zaizkie nire 45 exkasak. Argi dago ni behin ere ez naizela izanen pertsona «handia» eta «pisuduna».

Baina jarrai dezagun. Barruan ginen berriro ere, eta orduan ikusi genuen igogailua hantxe zegoela, pixka bat ezkutuan, bazterturik eta traste batzuen artean. Arduradunaren laguntzailearekin sartu eta igo ginen lehendabiziko solairuraino, baina hantxe bukatu zen gure poza, izan ere, euskal idazleen erakusketa teilatuaren ondoan baitzegoen, hau da, ganbaran, bigarren solairuan, eta igogailua lehenengoraino baizik ez zen iristen. Hortaz, oso ongi asma dezakezen bezalaxe, lau pertsonaren artean igo behar izan ninduten pulstuz eta airean bigarren solairuraino, hots, ganbararaino.

Eskailerak aldapatsuak ziren, eta akaburako, goian tresnaren bat zegoen jarrita, jendea ez igotzeko, nonbait. Hura ere kendu behar izan zuten.

Pentsa dezakezen bezalaxe, ateratzerakoan operazipo berbera guztiak egin beha izan genituen, baina jakina, alderantziz, beharantz.

Beno, eta bukatu baino lehen, ohar batzuk jarri nahi ditut hemen. Jende xeheak hobeto ezagutu ditzan, alegia, igogailua hori, Alfredo Jaime Iruñeko alkate ohiaren agintaldian jarri zuten, gauza ikaragarri handia egin bailuten. Teorian pentsatu behar zen, horrekin batera oztupo arkitektoniko guztiak kenduko zituztela, gutxienez, Arma aretoaren eraikina praktikagarria izan zedin, baina agabi asko dago ez zela horrela gertatu.

Mugikortasun murrizteko pertsonetzat, zoritxarrez, Iruñeko Gotorlekuan ere oztupo eta behaztopo gehiegi daude. Konpaziora, espaloietan, Labe Aretoan, Mistosen eta abar.

Garbi gelditu da, aldi hartan ere, Alfredo Jaime jauna ez zela asko luzitu. ■

Baretti eta Ulloa anaiak: italiar ziria euskal muinean

■ Ez bide zen zotzetan ziria sartzen aritzen zen horietakoa, horixe ezetz, Baretti signorea. Hala beharko bestalde, bideak luze korritu baitzituen Piemontekoak, luzez eta gelditzeke. Giuseppe Marcantonio Baretti Turinen jaio zen direla 278 urte, 1719.ean hots, gaur bezalako apirilaren 25 batean, bejondeiola beraz. Aita arkitektoa zuen, eta gure Giuseppek halakoetan ihardunen zukeen hain ikuste laburrekoa izan ez balitz. Alabaina aita zekenak aisa bilatu zion konponbidea semeari: apez sartu eta akabo buruhaustea! Halaz guziz Baretti txipia ez zegoen horrelakorik onartzeko prest, eta begi txatxekoa bazen ere, ergela ez genuen, eta etxeko babes interesatua utzirik, Guastallan zuen osabarengana ihes egin zion aitari. Guastallan bultza llaburra eman zuen eta maite zuen jardunari lotu zitzaion ikasle: bidaiatzeaari alegia. Ez zegokeen oker bada, eta argien mendeko ilustrazioak bultzatuari muzin ez egin nahirik, bidaiaria hartu zuen jakintza-iturburu. Hasiera batean Italiako iparraldetik barrena ibili zen, baina harat honat hauen guzien hondarreko helmuga Londres izan zuen 1751.ean. Bertan etzen geldirik geratuko, eta laster batean Italiar Antzokiaren zuzendaritza eskuratu zuen, baita Pinturaren Akademiaren idazkaritza ere. Zaluiren zalu ere bere burua ezagutaraztera eman zuen, ongi baino hobeto gainera. Samuel Johnsonen taldekia, frantziar entziklopedistek aitziko eritziak jaulki zituen gogorki, eta Rousseauri eta Voltaireri oldartu zitzaion kupidagabeki. Italiarra sorlekura itzuli zen, halaz guziz, baina ez zuzen-zuzenean, eta hegoaldeko Europa ezagutzeko zituen grinak betetzearren, Frantzia, Espainia eta Portugal bisitatu zituen Italiaratu baino lehen. Veneziara arribaturik, *Frustra letteraria* aldizkari literarioa sortu zuen Aristarco Scannabue ezizenaren azpian. Alabaina, agertzen zituen kritika lakarren kariaz, zenbaki bakan batzuk baizik ezin izan zituen argitaratu. 1765.ean debekatu baitzitoten. Afera honek bereziki etsi zuen gure gizona, eta Londresera bueltatu zen behin betikoz. Londresen harrera hobexegoa izateak ez zuen esan nahi arerorik ez edukitzea, eta larritasun esturen batean baino gehiagotan dantzatzea egokitu zitzaion, hala nola, bere isterbegi literario bat hil zuenean bezala, nahiz litean lite epaileak aske utzi, bere buruaren defentsan egin omen zuelako. Giuseppe Baretti ingeleserrian zendu zen 1789.eko malatzaren 5ean.

Hamaika lanen egilea, zorionez bere idazki guzien bilduma aspaldidanik argitaraturik dago, zoritxarrez ordea gurean ez da azaldu oraino. Edozein modutan ere, gure interesekoak baditu izkiriaturikoan artean, batik bat aipatu Europariko bidaiari buruz ondutak direnak. Hauexek, Milanen 1761.ean lehenbizi eta ostean Londresen 1768-69.ean ageri ziren, *A journey from London to Genoa through England, Portugal, Spain and France*. Euskal Herriatik ibili zela esateko arrazoi beste ez dugu, baina euskaldunei buruzkoak jaso baitzuten, bereziki Aragoi zeharkatzen ari zela bidaiaria zuen Sigüenzako kanonigo batek esanak.

Lehen eta behin Penintsulako hizkuntza ezberdinen berri eman zuen, zertan ziren eta nondik zetozkeen. Euskara, penintsulari zegokionean, Irunen, Tafallan eta Santanderren erpinak lituzkeen hirukian mintzo zen eta Europako gainontzeko hizkuntzekin erkatuz gero zer ikusirik ez lukeen hizkuntza bezala definitu zuen. Kanpotarra izateko jantzi samar agertzen zaigu Italiarra, geure orduko plaza gizonen ezagulea, eta Larramendiren gramatika zein hiztegia papereratu ostean, euskal literaturaren hainbat ikutu tipik marraztu zigun. Bitxia ere gerta dakiguke Sigüenzakoak eman zion euskalkien berria, hala nola, hizkuntz iturraina zen Bizkaikoa, Nafarroakoa eta baskoa, hau da, Iparraldean eginen zen hura.

Guziarekin Baretti hizkuntzalaritza kontuetan etzen batereko inozoa, hainbat hiztegiaren egilea bagenuen, baita gramatika egilea ere: *Introduction to the most useful languages: english, french, italian and spanish*. Alabaina euskararen balizko ahaidekotasunak bilatzerakoan alde zuzenetik jada jorraturiko bide antzu batetik abiatu zen. Eireko John Farrelen aholkularitzarekin, gaelikoaren ahaideztearen aldekoa azaldu zen, eta honen frogatzeko, latinez, euskaraz eta Eireko gaelikoaz ondu hiru aitagure eskeini zituen bere bidai liburuan, bere teoriaren sustagarri. Honen ostean euskara-ingeles hiztegi laburra ekarri zigun. Hauxe ez zen erabat gauza berria, eta 1738.ean, Frantzisko Gaintza, Iruñeko Kuria karrikan zegoen Picart-en etxean argitaratu emaniko *Historia de la Universidad de Irun-Urzu* liburuan, Irlandako biztanleen euskal etorkia frogatzeko ahaleginetan aritu zen.

Antonio eta Pietro C. Ulloa anaiak ere, hainbat urte beranduago, Euskal Herriari aipamenak utzi zizkiguten gurean egin zuten bidai baten hariaz, *Della Biscaglia e della Navarra: breve descrizione fisico-statica de alcune considerazioni storiche all'vopo di far meglio conoscere y fatti della presente guerra*, Napoliko Rusconi anaien moldiztegian, 1835.ean. Gerratea naski lehendabiziko karlistada genuen, eta tamaina urriko honetan isuritako hamaika topiko zaharren artean, bihoa Euskarari buruz ekarri zuten honakoa: «*Le Biscaglie han l'antico loro linguaggio, e non somiglia in nulla alla lingua spagnola. Essa si è conservata senza alterazione e senza corruzione, segnestamente frà monti. Dura e selvaggia all'udito di chi l'ignora, dolce de espresiva per que'che l'hanno in pratica. Le parole conservan tuttora le significazioni primitive. Essa è, se star si vuole alle prove addotte del Garai, como l'antica Cantabra, assai armoniosa*». ■



Bigarren Gazte Jokoak Beran

Joan den urteko arrakasta errepikatzeko asmoz, gazteen aisialdian eragin nahi dute antolatzaileek

Joan den urteko arrakasta errepikatzeko asmoarekin hasiko dira bihar Gazte Jokoak 97 Beran. Gazteen aisialdia betetzea, gazteek herriko ekintzetan modu aktiboan inplikatzeko eta elkarkidetzatza bultzatzea dira aurten ere helburu nagusiak. Egitarau zabal eta anitza prestatu dute antolatzaileek datozen asteburuetarako.

Jon Abril / Bera

ORAIN bi urte Gure Txokoa Elkartean zuzendaritza batzorde berria sartu zenean, gazteekin zerbait egin beharra jarri zuten erronka nagusien artean. Zenbait gazterekin batera herri olinpiadak antolatzea otu zitzaizkien. Bortzirietako Ongizate Zerbitzuko teknikariak horren berri izan eta elkarlanean hasi ziren ekitaldia antolatzeko. Hondarribiko herri olinpiadak antolatzen dituen batzordearekin elkartu eta zenbait ekintzatarako ideiak handik hartu zituzten.

Nolanahi ere, ideia horiek Berako egoerara egokitu beharra ikusi zuten. Lehen ekitaldian lauzpabost asteburuz egitearekin nahiko izanen zela iruditu zitzaizkien. Une hartan, Lamixine BAT herriko antzerki taldeak bere kale ikuskizunerako herriko taldeen arteko olinpiada bat egitea buruan zuela jakin zuten eta antolakuntza bateratua egitea proposatu zieten. Hilabete batzuen buruan 120 gazte parte hartu zuten lehen Gazte Jokoen.

Aurten, antolatzaileak berriz ere elkartu dira Gure Txokoa Elkartean arrimuan iazko esperientzia errepikatzeko asmoz. Herriko taldeen arteko elkarlana bultzatzeko pauso garrantzitsua izan zen eta aurrera begira duen garrantzia ere azpimarratzen dute talde ezberdinetako kideek.

Idea sortu zenean, gazteen aisialdia aztertu zuten. Ondorio nagusi gisa, gazte beratarrek jardueren artean musika eta batez ere kirolak zituztela ikusi zuten. Horiek gaudituko zituen egitarau bat osatu nahi zuten, hartara, kirolean aritzen ez zirenak ere hurbilduko baitziren. Era berean, proba bakoitzak bere helburua eduki zezan nahi zuten. Horrela, kirol-jokoa, alor artistikoa, antzezpena (jendaurreko lotsa galtzeko helburu nagusia-ekin), herria ezagutzea eta ingurunearekin harremanetan jartzea garrantzi bereziki hartu zituzten antolatzaileek. Iazko zenbait proba errepikatuko ez diren arren, aurten sartu diren joko berriak kendutakoan helburu bera dute.

Aurtengo ekitaldiko frogak aukeratzeko garrantzi berezia izan zuen iazko Gazte Jokoen ondoren egin zen balorazioan esandakoak. Gazteei hitza eman zitzaizkien eta bi ondorio nagusi



Argazkiko erromatarren modura, adin guztiko beratarrek bildu nahi dituzte antolatzaileek.

EGUNKARIA

Egitarau zabal eta anitza

BIHAR hasi eta maiatzaren 17ra arte, hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera izanen dute Berako gazteek. Aurten, gainera, larunbatz gain Maiatzaren Lehena (besta eguna) aprobetxatu nahi izan dute. Hona hemen egun bakoitzerako prestatutakoa eta proba bakoitzaren nondik norakoak:

Apirilaren 26an: arratsaldeko 7:30etan Lamixine BAT antzerki taldeak inaugurazio ekitaldia egingen du Altxateko plazan eta parte hartuko duten

taldeak aurkeztuko dira. Ondotik, Altxate karrikan patinoztopo proba izanen da. Talde bakoitzeko sei lagunek patinen gainean errelebuak panpin bat jantzi beharko dute bidean hamaika oztopo gaindituz. Oreak, umorea eta abilezia uztartzen dituen jokoa izanen da.

Maiatzaren 3an: arratsaldeko 3etan hasita, kiroldegia aitzinean panpin erraldoiak eraikiko dituzte. Metro eta erdi eta bi metro bitarteko panpinak izanen dira. Partehartzaileek zurezko eskeleto bat izanen dute eta horren gainean egituratu beharko dute euskal mitologiako edota euskal dantzetako pentsonaia bat. Denbora mugatua izanen da eta erabili ahal izanen diren tresnak eta elementuak antolakuntzak zehaztuko ditu.

Maiatzaren 3an: arratsaldeko 4etatik aitzinera jinkana kulturala egingen dute. Herriko bitxikeriak eta historia ezagutzeko galdetegi luze eta zail bati erantzun beharko diote

jokalariek, eta tartean zenbait proba egin beharko dituzte. Iaz ez bezala, lasterka egin beharko dute ibilbidea.

Maiatzaren 10ean: goizeko 9etatik aitzin, Gure Txokoa elkartetik abiatuko dira taldeak herriko errekek garbitzera. Talde bakoitzak bere txokoa izanen du eta ahalik eta garbien uzten ahaleginduko da. Bildutako zaborra lamotenea pareko aparkalekuan pilatuko da eta Hiri Hondakinen Mankomunitatea ardu-

ratuko da hura eramanez.

Maiatzaren 16an: ortzirale iluntzean, 8etan hasita, talde bakoitzaren play-back edota dena delako ikuskizuna aurkeztu beharko dute talde bakoitzak.

Maiatzaren 17an: Lamixine BAT taldearen akabera besta izanen da Herriko Etxeko plazan. Ondotik, partaideak afaltzeri bilduko dira ekitaldiari agur ezin hobea eskaintzeko.

atera ziren handik: batetik, data egokia zela, eta bestetik, iraupenarekin ezin hobeki asmatu zutela: ez motz, ez luze. Proben artean, berriz, jinkana kulturalak eta parodiak izan zuten harrekaririk hoberena.

Iazko egitaraua eta aurtengoa alderatuz gero, hiru proba berdinak direla antzemango du edozeinek, baina errepikatuko bi batzirik ez dira egingen, arestian aipatutako parodia eta jinkana kulturala. Hirugarrena zabor biltzaren izan zen, baina eguraldi kaxkarrak galarazi zuten eta aurten berria izanen da partehartzaileentzat.

Gainerako bi probak berriak izan arren, desagertutako bien filosofia bera dute. Eski erraldoietan egin beharrekoa patinetan egingen dute aurten, baina oztopoz beteriko zirkuitu batean.

Alderdi artistikoa jorratzen zuen frogara ere aldatu dute. Kiroldegian aitzinean egin ziren muralen ordez panpin erraldoiak egingen dituzte, euskal mitologia eta euskal dantzak gai harturik.

Herriko gazteen harremanak

sendotu • Baina Gazte Jokoen probek gainera berezitasun franko dituzte. Herriko gazteen arteko harremanak zeharo aldatzen dira egun horietan, eta urte osoan nabaritu da aldaketa. Elkar ezagutzen ez duten gazteen arteko harremanak estutzea lortzen da, eta urtean zehar egingen diren ekitaldietan elkarlana areagotu egiten da. Horren lekuko dira joan den urteko bestetan gazteek arratsetan antolatutako joko eta ekintzak.

Iazko esperientzia eskarmentu gisa hartu dute antolatzaileek

aurtengoa antolatzeko. Lehen aldian, derrigor lan egin behar izan zuten lan egin zuten moduan. Antolakuntza batzordea eratzen zuten lau kideek eraman zuten pisu nagusia, zenbait elkartekidek eta une batzuetan jende anitzek lagunduta, eta proben diseinua ere neurri handi batean haiek egin zuten. Aurten, aldiz, gazteek partehartze zuzenagoa izan dezaten talde guztien ordezkariek inplikatu dituzte antolakuntzan. Talde bakoitzetik, gutxienez, kide batek parte hartu behar du antolakuntzan. Bortz batzorde osatu ziren otsailean probak egituratzeko, eta ordutanik lanean aritu dira. Bortz batzordeok lau proba (jinkana kulturala ez bertze gainerakoak) eta publikitatea egiteaz arduratu dira.

Publizitatearen diseinua era-

bat berritzailea izan da bi urteotan. Jendearen arreta bizteko nahitaezkoa ikusi zuten antolatzaileek faktore hori. Kartelaren diseinuaz eta egituratzeaz Maite eta Jabier Lekuona anai-arrebak arduratu dira bi aldiotan.

Ekitaldiaren hasierako ongi etorria nahiz amaiera ekitaldia Lamixine BAT antzerki taldearen esku daude, eta horrek ere adin guztietako jendea erakartzen du gazteek egingen dituzten ekitaldiak ikustera. Helburu nagusien artean, partehartzaileen adin tartea handitzea dago, ia denak hamabortz eta hogeita bi urte bitartekoak baitira; antolatzaileek gazte sentitzen den ororen gaitasuna iritsi nahi dute, ordea, baita urtetan goiti doazen horien gaitasuna ere. Bortz astez, beraz, gazteek hartuko dituzte Berako kaleak. x

♦ Javier Hernandez Goñi ♦ Nafarroako Landa Hotelen Elkarteko lehendakaria

«Merkatura ateratzeko prest gara»

J oan den asteko astelehen eta asteartean, Nafarroako Landa Hotelen Elkartek bigarren biltzarra egin zuen Arnedillon, Errioxan. Elkarteko kide diren hotel gehienetako arduradunak izan ziren han, baita Eroski Bidaia, Bideak elkarte eta Nafarroako Gobernuako Turismo Saileko ordezkariak ere.

Eduñe Elizondo / Iruñea


ERRIOXAKO biltzarrari buruz ezezik, Nafarroako Landa Hotelen Elkarteari berari buruz ere mintzatu gara Javier Hernandez Goñi lehendakariarekin. Elkartea zergatik sortu zuten azaldu eta esku artean dituzten proiektuen berri eman digu Udabeko Bentako arduradunak.

■ Nola sortu zen Nafarroako Landa Hotelen Elkartea?

Enpresariok ikusi genuen bakarrik zaila genuela merkatura ailegatzea, ballabide ekonomiko urri ginelako gure eskaintzaren berri emateko. Iñaki Olaiz —elkarteko gerentea eta Auzako Sasondo landa hoteleko kidea— eta biok, orduan, konturatu ginen elkartzea izan zitekeela arazo horri aurre egiteko aukera. Berehala konturatu ginen, zenbat eta jende gehiago elkartu, orduan eta gauza gehiago egiteko aukera izanen genuela, indar gehiago izanen genuela gure irudia sortu, elkarrekin lan egin eta aurrera ateratzeko.

■ Zenbat kidek osatzen dute gaur egun elkartea, eta non goak dira?

Hemezortzi kide gara. Elkartea Nafarroa osorako sortu bagenuen ere, bokazio turistikoak iparraldean existitu izan da, zeren eta mendialdean, arrazoi ugari dela bide, beti izan dira bisitariak. Erriberak ez du izpiritu turistiko hori izan, horretarako baldintzarik ere ez zuelako; horrenbestez, han diren ostatuak gehiago dau-



Javier Hernandez Goñi, Nafarroako Landa Hotelen Elkarteko lehendakaria.

LUIS AZANZA

de zuzenduak bidaiariel, profesionalak. Orain hasi dira batzuk sortzen, eta saiatuko gara elkartean sartzen, gure asmoa Nafarroako hotel turistikoak biltzea baita.

■ Elkartea sortu zenutenetik, asko aldatu al da zuen lan egiteko modua, zuen eskaintza?

Askok aldatu da, asko. Elkartean sorrerak, gainera, landa turismoaren gorakadarekin bat egin zuen. Orain dela bost urte arte horrek ez zuen ia inolako garrantzirik; establezimenduek beren bezeroak zituzten eta kitto. Orduan aurrera, establezimendu berri asko sortu da, konpetentzia handia dago; beraz, lehiatu ahal izateko, merkaturaz egaztutzea funtsezkoa da. Hasieran, Nafarroako Landa Hotelen Elkartean diren hotelen artean, batzuek baino ez zuten benetako bokazio

turistikoa, lan metodologia bat. Gehienak oheak zituzten jateak ziren, eta ez zuten beste asmorik.

■ Eta orain bai?

Elkartean garenetik, uste dut denok profesionalagoak garela. Gure lana eta zeregina zein den konturatu gara, baita gure hotelek nolakoak izan behar duten ere. Guretzat, elkarrekin eman ditugun urte hauek oso garrantzitsuak izan dira, gure lanbideari buruz asko ikasteko aukera eman digutelako, eta denbora honetan turismoaren alorreko profesionalak garela konturatu garelako. Gure lana ez da bakarrik oheak eta bazkaria saltzea, batziki eta, erratan duten bezala, zoriontasuna saltzea. Hori guztia dela eta, elkarteko kideak beren hotelak prestatzen hasi dira, azplegitura egokitu dute, berrikuntzak egin dituzte. Hitz batean esanda, prestatu egin dira. Hori izan da gure zereginik garrantzitsuenak. 1996. urtean kalitateari dagokion prozesua burutu genuen, eta orain, kalitatearen arabera, hain zuzen, hiru talde osatu

ditugu, eta baita talde bakoitzari dagokion prezio multzoa ere. Horri esker, bidai agentzia eta bidai antolatzaileekin modu profesionalan lan egiten hasteko aukera izan dugu.

■ Zein da eman beharreko hurrengo urratsa, beraz?

Hurrengo eta falta zaiguna, gure hotelak informatizatzea da, eta lan horri ekingo diogu aurre, erreserbak egiteko zentral automatikoa sortzeko. Aldi berean, uste dut merkatura ateratzeko prest garela, lehiatzeko eta saltzeko gai garela. Eta hori egin nahi dugu orain. Merkaturaren gaiaren ildotik, halaber, Euskal Autonomi Elkartean gurea bezalako elkarte baten sorrera bultzatu nahi dugu, guztiok elkartu eta gure eskaintza Europan aurkeztu ahal izateko.

■ Eroski Bidaia taldearekin akordioa sinatu duzue, eta horren arabera, hori izanen da zuen agentzia eskusiboa. Nafarroako Turismoaren Eremuko Enpresen Elkarteari ere (Bideak) lan egiten duzue. Zer abantaila du elkarlan horrek?

Javier Hernandez Goñi Iruñeko industria metalurgikoa utzi eta ostalaritzan murgildu zen buru-belarri, orain dela hamabost urte. Lagun batzuekin Iruñeko ostatu zahar bat beritu eta han aritu zen lanean hainbat urtez.

Ostatu hartako giroak nekatuta, leku lasalago bat bilatu zuen. Niza taberna ezaguna alegia. Lagun baten eskutik, dena den, bertan ere lanbidea aldatu eta tabernatik hotelera igaro zen Javier Hernandez.

Hiria utzi eta herri bateko etxe zahar bat landa hotel bihurtu zuen; horrela hasi zen Udabeko Bentaren jardura. Javier Hernandezen «txoko atsegin eta erakargarri» horrek sei urte beteko ditu laister.

Eroskirekin akordio eskusiboa egin dugu gure marka Euskal Herri osoan saltzeko. Bion arteko elkarlana guretzat oso interesgarria da, Euskal Herrian lehenengo agentzia baita, eta baita euskal produktua hobekien zaintzen duena ere. Bideak elkarteari dagokionez, hainbat urtez zain izan gara, elkarteko enpresak egitura sendoa izan duten arte. Gu prestatu garen bezala, Bideak elkarteko kideak ere prestatu dira, eta uste dut orain elkarrekin lan egiteko moduan gaudela. Finean, elkarren beharra dugu denok.

■ Errioxan joan den astean egin zenuten batzarrari dagokionez, zer ondorio atera duzue?

Batzarrean atzera begiratzeko aukera izan dugu eta konturatu gara gustura gaudela elkarrekin, eta pozik orain artean egin dugun lanarekin. Eroski Bidaia agentziako buru Jose Miguel Mera, Nafarroako Gobernuako Turismo Saileko zuzendari Ana Lizarraga eta Bideak elkarteko lehendakaria ere han izan ziren gurekin, harremanak sendotzeko. x

«Elkarrekin eman ditugun urteek gure lanbideari buruz asko ikasteko aukera eman digute»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

